

Hamatarpi

2018ko udaberria



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala



**ANTZERKIA, KALERA!
2018KO UDAL AURREKONTUA
BOLO-JOKOÅ, GORA DOAN ZALETASUNA
ZUGATIK IMANOL-IBILGAILU KLASIKOEN ELKARTEA
EUSKARALDIA, EUSKARA AKTIBAZIO-EKIMEN ERRALDOIA
EALZ, BIGARREN ESKUKO MERKATU SOLIDARIOAREKIN BAT
GORBEIALDEKO KUADRILLAKO XXIII. EMAKUMEEN TOPAKETA
ZIGOITITIK MUNDURA, AURTEN UGANDA ETA ERREFUXIATUEKIN**



04



06



08



09



10



12



13



14

Hemen eta orain

- 03 Herri Kirolak Zigoitian. Arabako Herrien Arteko Txapelketa
- 04 2018ko udal aurrekontua
- 06 *Zigoitik Mundura*, aurtengo **Uganda** eta errefuxiatuekin
- 08 **EUSKARALDIA**, euskara aktibazio-ekimen erraldoia
- 09 Badator **Gorbeialdeko Kuadrillako XXIII. Emakumeen Topaketa**
- 10 **Festikale**: antzerkia kalera!
- 11 **Bolo-jokoa**, gora doan zaletasuna
- 12 *Zugatik Imanol*- Ibilgailu Klasikoen Elkarte

Kolaborazioak

- 13 Eguneko Arretarako Landa Zentroko berriak
- 14 Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulurekin**

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2018ko udaberria

Azala: Endika Portillo. *Dutxiki Zigoitia.*

Editatzailea: Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Erredakzioa:

Idoia Perez Gallardo · Rosa Ortiz de Mendivil

Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com

Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08
Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:

www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Herri Kirolak Zigoitian

Arabako Herrien Arteko 2018ko Txapelketa

Herri Kirolen Herrien Arteko Txapelketan lau talde ari dira parte hartzen aurtengo: Zigoitia, Mendialdea, Artziniega eta Donemiliaga. Eta pasa den apirilaren 7an, Bengolarrako frontoian Zigoitia-Mendialdea lehia ikusteko aukera paregabea egon zen. Saioa ikusgarria izan zen, ikusleen esanetan,



eta etxekoek 6 froga irabazi zituzten eta 3 galdu, 15 puntu lortuz.

Aldizkari hau itxeko momentuan lehiaketak jarraitzen zuen, beraz ez dakigu nola geratu diren gureak. Baina argi daukagu ikuskizun ederra eman dutela. Zorionak!

2018ko Zergadunen Egutegia

HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2018-05-01 _ 2018-06-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren %50a) – Ekainaren hasieran
Bigarren epea (kuotaren %50a) – Urriaren hasieran

ZABOR-BILKETAREN TASA

Borondatezko epea:
2018-05-01 _ 2018-06-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Ekainaren hasieran

LANDAK

Borondatezko epea:
2018-06-01 _ 2018-06-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Ekainaren hasieran

ABELTZAINZA-KANONA

Borondatezko epea:
2018-06-01 _ 2018-07-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Uztailaren hasieran

IGERILEKUAK, UDALEKUAK ETA ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROAK

Autolikidazioa, izen-emate eskabidearekin eta ordainagiriarekin batera, zerga-ordenantzaren arabera.

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK
Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxa: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.eus

2018ko udal aurrekontua

Udalak 2.947.916,51 € gastatuko ditu aurten, 2017an baino % 6,32 gehiago

Etxebizitza eta Hirigintza, Kultura, Herritarren Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak dira gastu publiko nagusiak



Martxoaren amaieran onartu zituen Zigoitiko Udalak 2018rako kontuak. Guztira, aurten ia 3 milioi euro gastatuko dira; zehatz mehatz 2.947.916,51 €, hau da: iaz baino % 6,32 gehiago. Gobernu taldearen arabera, aurtengoa da, orokorrean, "azken urteetakoekin bat datorren aurrekontua, gure udalerriko oinarritzko zerbitzu publikoak mantentzeko eta hobetzeko helburua duena".

Gastu partida nagusiak hurrengo hauek dira:

Kultura

Atal honetan 731.707,72 € gastatuko dira. Iazko kantitatearekin konparatzen badugu, % 18,22 gehiago. Inbertsio nagusien artean, azpimarratzekoa da Musika Eskolaren irisgarritasuna hobetzeko egingo diren lanak: igogailua jarriko da, eskailera berri bat egingo da eta baita egokitutako bainugelak ere. Izan ere, gure Ondare Historikoa ibilbideen bidez ezagutarazteko partida bat sortu da. Eta iaz egon ez ziren Festikale eta Antzerki Eskolarako partidak berreskuratu egin dira.

Etxebizitza eta Hirigintza

2018 honetan 242.694,79€ erabiliko dira etxebizitzarekin eta hirigintzarekin erlacionaturiko proiektuetan, iaz baino % 2,83 gehiago. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste 82.776,33 euro, epai judizial baten ondorioz; kopuru hori, udaletxean obra akats baten ondorioz sortutako hezetan-arazo bat konpontzeko erabiliko da. Gainera, Urisolo kalean beste lonja bat egokituko da merkataritza-lokal bihurtzeko eta, Eskualdeko Enplegu Planaren barruan, bi pertsona kontratatuko dira mantenu lanetarako, hiru hilabetez, jardunaldi osora.

Herritarren Ongizatea

Partida honetan sartzen dira, besteak beste, zabor bilketaren zerbitzua, argiteria publikoa eta kaleko garbiketara. Guztira gastatuko dira 486.151,36 euro, iaz baino % 88,28 gehiago, gehien hazten den ataletako bat izanik. Horren arrazoia argiteria publikoa eraginkortasun energetikoa hobetzeko egingo diren inbertsioetan aurkitzen dugu (216.971 euro). Eta baita Zigoitiak Gorbeiak

Inguruetako Partzuergora (kuadrillan zaborra jasotzeko kudeatzen duen erakundera) ordaintzen dion tasa %10a igo delako ere. Igoera progresiboa da, duela urte pare bat hasi zena, eta hurrengo urteetan hazten jarraituko duela, Jundizeko tratamendu-instalazioetako Hiri Hondakinen Kudeaketa berri baten ondorioz. Azkenik, atal honetan aipatu behar dugu herri eta etxe konpostajerako gune berriak egiteko eta kudeatzeko proiektua.

Gizarte Zerbitzuak

Atal honetan sartzen dira Gizarte Zerbitzuzuztien kudeaketa-gastu guztiak, menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuak eta laguntzak, Eguneko Arretarako Landa Zentroa, Berdintasunaren sustapena, eta abar. Horretarako aurrekontuan 200.631,79 €ko kopurua dago, iaz baino % 7,71 gehiago. Eta nabarmentzekoa da Bendintasun Planaren ekintzetarako aurrekontuaren igoera, Batzarrean adostu zen bezala.

Diru sarrerak

Udalak jasoko dituen diru sarrerari dagokienez, aipatu behar da Arabako Foru Aldundiaren Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren % 3,11ren igoera.

Musika Eskolako proiekturako diru-laguntza bat jasoko da eta baita langileak kontratatuzko ere; azken kasu honetan Lanbidetik etorritakoa. Izan ere, arginteria publikoa hobetzeko lanak direla eta, 2018-2019 Foru-Planaren barruan beste diru-laguntza bat eskatu da. Proiektu horrek Landa eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak ere jasoko ditu, eta baita beste bi diru laguntza ere, Energiaren Euskal Erakundearen (EEEren) eta Mugarri Planaren eskutik. Irisgarritasunari dagokion laguntza, Foru Planekoa, Landa eremuak sustatzeko eta garatzeko, EEEK eta Mugarri Planak emandakoak eta Lanbideko laguntzak gehituta, 390.000 euro ingurukoak izango dira diru-sarrerak.

Bukatzeke, iaz jaso ez genuen Eusko Jaurlaritzako Antzerki Egoitzarako 22.000 euroko dirulaguntza berreskuratu dugu.



Øndasun Higiezinaren Gaineko Zerga: hobariak eta etxebizitza hutsten errekarua

Ohiko etxebizitzetarako hobariak hobetzen eta zabaltzen dira, 42.000 €ko errenta baino gutxiago duten familientzat (lehen, muga 21.000 €koa zen). Aldiz, etxebizitza hutsetarako % 20ko errekarua ezarriko da.

Diru-laguntzak Haurreskolarako

2 urtera arteko umeak zentro publikoetan eskolatzea errazteko asmoarekin, Udalak 20 eurotik 90era arteko diru-laguntzak emango ditu, familiaren errentaren arabera.

Pagazuri aterpea

Hainbat konponketa egingo dira. Eta erabiltzeko tasa, azken 7 urteetan aldatu ez dena, eguneratuko da. Hemendik aurrera, gau bakoitzeko prezioa 20 eurokoa izango da (lehen 10 € ziren)

Info +: Zigoitiko udal bulegoetan. Eta 945 46 40 41 telefono zenbakian.

2018ko udal aurrekontuaren xehetasunak eskura ditzakezu hurrengo estekan: <https://www.zigoitia.eus/eu/udala/udal-aurrekontua>



'Zigoitik Mundura' elkartearen eskutik

Zigoitiarren elkartasuna Ugandara ailegatuko da aurten

Munduko kolektibo behartsuenei euren alea iritsarazteko helburua duen elkartasun proiektua da. Hirugarren urtea dute hau martxan jarri zirenetik eta aurten Ugandako 'Vura Music Project' proiektuan arituko dira buru-belarri.

Zigoitia udalerrri solidarioa da, honezkero ez dago zalantzarik. Horren adibide argia da 'Zigoitik Mundura', gehien behar duenari laguntza eskaini eta ematea bilatzen duen elkartasun proiektua.

"Zer egin, nola lagundu, nola bizi garen gu eta zer nolako mundu mailako desordena ari den pairatzen gizartea; gerrak, gosea, diktadurak, ekonomia-politikoak, etab... ikustearen ezinegonak bultzatuta mugitzen hasi ginen" diote proiektuko kideek.

Orduan sortu zen ekimenaren ideia, udalerriko familia batek ospatutako bazkari baten ostean, siriarrak errefuxiatuen inguruan hitz egiten hasi zirenean eta zer edo zer egiteko informazio bila hasi zirenean. Hortik sortu zen, duela hiru urte, 'Zigoitik Siriara', gaur egun 'Zigoitik Mundura'

izatera pasa dena, helburuak zabaltzean, "nazioartekoagoa" izateko asmoz.

Gopetik Gizarte eta Kultur Zentroa bilgune eta erabaki-gune bilakatu da taldearentzat. Pasa diren bi urteetan lana eta proiektuak Sirian oinarritu badira ere, aurten Ugandara bideratuko dute laguntza, 'Vura Music Project' ekimenaren bitartez. Hor egiten du lan 'Solidarios con Arua' elkarte nafarrak, musikaren bitartez Uganda bera berreraikitzen lagundu nahian. Bi musika eskola eraiki dituzte jada! Gainera, Grezian eta Serbian dauden errefuxiatu siriarrak laguntzen jarraitzeko asmoz, 'No Name Kitchen' asturiar GKEarentzat diru-bilketa egin dute, Bilarreko 'Hemendik-Harantz'-ekin elkarlanean dabilena. Ekintza guztiak "Zigoitiko Udalaren babespean" egiten direla diote elkartetik, baina herritarren

"harrera eta babesa" ezinbestekoa izan dela ere azpimarratzen dute.

Elkartasun Jaialdia

Momentuz, 'Zigoitik Mundura'-k antolatutako azken ekintza Elkartasun Astea izan da, apirilean burutua eta hilaren 22an festa batekin borobildu zutena. Zigoitiko komunitateak emandako erantzunari esker "ikusgarria" izan dela aitortu dute elkarteko kideek. Haurtzako ginkana, bigarren eskuko merkatua Ondategiko frontoian, non zigoitiarren donazioak jaso ziren, eta pintxo-potea izan ziren egitarauaren barruan aurrera eramandako ekintzetako batzuk. Hori guztia, 'Mairu Abesbatza'-k eta Ugandako pare bat abesti kantatu zituzten Zigoitiko musika eskolako haurrek alaitua. Marisol taldearen eskutik Dantza Plaza ere egin zen, ondoren 'Artichokes' rock taldeari paso eman ziona. Egunean zehar 200 paella-plater baino gehiago banatu ziren, bertan prestatutakoak.



Zigoitiak ere heldu dio EUSKARALDIari



2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra aktibazio-ekimen erraldoi bat iritsiko da Euskal Herri osora. Nor aktibatzen? Euskal hiztunak. 11 egunez, euskara erabiltzeko aukerak biderkatu egingo dira. Zigoitiarrok, prest zaudete erronkari heltzeko? Denbora luze geratzen dela ematen du eta halaxe da, baina lanean hasi gara jada. Aurkezpena irailaren 8an izango da, Mairulegorretako jaialdiaren bezperan. Gorde data!

Gai gara zigoitiarrok, 11 egunez, euskara hutsean funtzionatzeko? Udazken honetan izango dugu hori egiaztatzeko aukera paregabea eta Euskaraldia ekimena izango da egiaztatzeko arduraduna. Ekimenean parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: 16 urtetik gora izatea eta euskaraz ulertzea. Bakoitzaren mailaren arabera, bi hiztun-profil bereiziko dira (txapen bidez identifikatuko dira parte-hartzaileak):

AHOBIZIAK: euskaraz 11 egunez funtzionatzeko konpromisoa hartuko dute. Lehenengo hitza beti egingo dute euskaraz eta erdaraz erantzuten dietenekin (ulertzen badiete) euskaraz jarraituko dute. Euskarari eutsiko diote.

BELARRIPRESTAK: beraiei euskaraz egin diezaieten gonbidapena egingo diete ingurukoei. Ahal badute, euskaraz egingo dute, ahal duten neurrian. Ez badira gai, edo ez badira ausartzen, gaztelaniaz egingo dute, solaskideari euskaraz egiteko eskatuta.

Azken finean, hiztunentzako euskara erabiltzeko espazioak zabaldu, aukerak biderkatu, eta ingurune osoak finkatu nahi ditu ekimenak. Eta oso garrantzitsua den beste gauza bat ere bai: euskaraz egiteko gaitasuna ez da muga ekimenean parte hartzeko. Apur bat dakitenek, gutxi dakitenek edo euskaraz egiteko arazorik

ez dutenek berdin har dezakete parte, bakoitzak bere neurrian.

“Asko eta asko gara Zigoitian euskaraz dakigunak, eta askok dugu erabiltzen duguna baino gehiago erabiltzeko gogoia” adierazi du kuadrillako euskara teknikariak, Manex Agirrek. “Euskaraldiak horretarako zubiak jarriko ditu denon eskura: Zigoitiko kale, parke, taberna, denda, egoitza... eta bestelakoak ahobiziz eta belarriprestez betetzeko erronka dugu esku artean”, azaldu digu.

Topagunea Elkartea (euskara elkarten federazioa) eta Eusko Jaurlaritzak dira ekimenaren sustatzaileak. Udalerririk bakoitzean egitasmoa aurrera eramateko ardura dutenak, ordea, udalerririk horretako euskaltzaleak izango dira. Zigoitian, Zigoitia Euskaraz antolatzen duen lan taldeak heldu dio Euskaraldia antolatzeko erronkari, eta udalaren eta herritarren arteko lankidetzaren bidez gauzatuko da egitasmoa. Hala ere, animatzen denarentzat, atea zabalik dago, noski... horretarako, euskara@gorbeialdea.eus helbidera mezu bat bidaltzea besterik ez da egin behar.

Ekimenaren gaineko informazio guztia topatuko duzu euskaraldia.eus helbidean.

Badator Gorbeialdeko Kuadrillako XXIII. Emakumeen Topaketa

Besteak beste, Laia Eskola aurkeztuko da, Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola. Eta ‘Volar’ filma emango da, non bortizkeria matxista jasan eta gainditu duten emakumeek euren bizipenak kontatzen dituzten. Protagonistek ere hartuko dute parte.

Orain dela 23 urtetik hona, ekainaren lehenengo ostiralean Gorbeialdeko Kuadrillako Emakumeen Topaketa egiten da, txandaka herri ezberdin batean. Aurtengoa Legutioko Kutur Etxean izango da, ekainaren 1ean, emakume eta gizonen arteko berdintasuna ardatz duela. Bizi-bizia eta gaurkotasan handikoa den gai hori lantzeko ‘Volar’ film-dokumentala proiektatuko da, kuadrillako Berdintasun zerbitzuetik adierazi digutenez. Bertha Gaztelumendi zinegileak azken Zinemaldian, Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdian, aurkeztutako lana da. Bertan, bortizkeria matxista jasan eta gainditu duten 9 emakume, 9 biziraulek, euren bizipen eta esperientziak kontatzen dituzte. Emakunde, proiektuaren bultzatzaileetako batek, azaldu duenez “ekimena emakumeek beraiek beraien testigantzak publiko egiteko sentitutako beharretik sortu da eta genero indarkeriaren aurkako lan ausarta eta konprometitua da”. Filma ikusi ondoren, solasaldi bat egongo da protagonistekin eta ikusle guztiek parte hartzeko aukera izango dute.

Topaketako bigarren zatian aurkeztuko da Laia Eskola, Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola. Eta jarraian Ana Freixas, idazle eta unibertsitateko irakaslea, emakumeen zahartzean, hezkidetzan eta feminismoan aditua dena entzuteko momentua

helduko da. Hitzaldiaren ondoren bideo bat emango da, Martxoaren 8an Gorbeialdeko Mugimendu Feministaren parte hartzea jasotzen duena. Eta jarraian Legutioko kaleetan zehar batukada bat egingo da, emakumeek eta emakumeentzako prestaturiko jardunaldia borobiltzeko.

Zigoitia BERTINSAREAN

Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea dugu Bertinsarea. Helburua da berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka tokiko gobernuetatik kudeatutako programa eta zerbitzuak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea. 66 udalerririk baino gehiagok osatzen dute sarea; Arabako kasuan, Amurriok, Laudiok, Gasteiz eta Araiak. Zuian gertatu den bezala, Zigoitian ere udal batzarrak onartu du kide izatea eta bere sarrera bideratzen ari da. Bertinsarearen estaldura Euskadiko biztanleen %78 baino gehiagora iristen da gaur egun, eta Berdintasun arloan egiten ari den lana erreferentzia bihurtu da.

Info +: Berdintasun zerbitzuaren informazioa jaso nahi duzu? Ekintzak, hitzaldiak, tailerrak... Jarri gurekin harremanetan e-posta honetan: berdintasuna@gorbeialdea.eus



2017an Zigoitian egindako Kuadrillako Emakumeen Topaketa.

Antzerkia kalera!

Festikale. Uztailaren 19tik 21era.
Gopegin eta Ondategin



Bederatzi ikuskizunek osatuko dute aurtengo Festikaleren egitaraua, uztailaren 19tik 21era Gopegin eta Ondategin egingo dena. *Panta Rhei, Vaiven, Ponten Pie eta Quasar Teatro* izango dira parte hartuko duten konpainietako batzuk.

Festikalek, aurten bosgarren edizioan, jaialdi 'artistikoa' proposatzen du, publikoarekin harremantzeko era berri eta ezberdinetan oinarritua. Arte eszenikoaren eraikuntza kolektiboa sortzera bidean, ideia berriak asmatzea da helburua. Horregatik, ezohiko espazioetan antzeztea da xedea, komunikazio forma berrietan oinarrituz, 'agora' delakoaren errituala eguneratzeko.

Aurtengo egitaraua oparoa da oso. 'El ultimo tren a Treblinka' *Vaiven* Produzioena, 'Loo' *Ponten Pierena*, 'De agua y barro' *Quasar Teatrorena* edo 'Astokillo Circus' *Panta Rhei* tokiko konpainiarena dira, uztailaren 19tik 21era, Gopegin eta Ondategin, egitarauaren barruan antzeztuko diren obretako batzuk. Horrez gain, ikuskizun bereziak ere egongo dira, hala nola, *Tobacco Road* taldearen kontzertua, Antonio Azazeta gitarran eta Txitxo Amili gitarra, ahots eta narratzaile paperean.

Bestalde, *Cal y Canto* konpainiak 'A.T.A.K.A.' espektakulua antzeztuko du. Aldiz, antzerki aste honetan teloa ixteaz *Apodaka Jazz* musika taldea arduratuko da. Hala eta guztiz ere, egitarauak eta *Festikalek* berak ere, sorpresa anitz izan ditzake, oraindik argira atera ez direnak...

Ezohiko oholtzetan

Gure udalerrikoa topaketa eszeniko aitzindaria da. Jaialdia 2014. urtean sortu zen, Zigoitiko *Panta Rhei* konpainiaren eskutik. Egun, Zigoitiko Udalaren, Zuiako Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntza jasotzen du. Landa-eremuan egiten da eta proposamen eszeniko berritzaileak eskaintzen ditu. Kale-ikuskizunak dira, baina ezohiko guneetan. Zigoitian sortua, zigoitiarrentzako, urteen poderioz handitzen doan heinean, gero eta ekoiztetxe gehiago doaz batzen egitaraura.

Bolo-jokoa, gora doan zaletasuna

Udalerriko herritarren %10ek baino gehiagok hartzen du parte Zigoitiko Bolo Txapelketan, hitzordurik ezagunenean. Baina, ez pentsa! Beste batzuk ere badaude: Abetxuko, Herriartekoa, Aldundiaren Txapelketa, Gorbeia Inguruetakoa...



Argazkia: Isidro Saenz de Urturi.

Ondo errotutako tradizioa da, partidetan oso giro ona egoten da eta herrietako bizitza animatzeko aukera bikaina da. Hauek dira arrazoi nagusiak gure udalerrian bolo-jokoa gora doan zaletasuna dela azaltzeko. Hala azaldu digu Juan Carlos Gonzalez de Garibayk, Akostako taldeko bolariak, eta oso datu adierazgarria eman digu: "Zigoitiko Txapelketan hartzen du parte herritarren % 10ek baino gehiagok. Iaz, 180 izen-emate egon ziren eta finaleko bazkarian 140 pertsona elkartu ginen. Aurten, gainera, hiruzpalau gazte-talde berri egongo dira. Bolo-jokoa bizi-bizirik dago hemen". Batzuetan 3 belaunaldi ezberdin elkartu direla kontatu digu, eta gaur egun guraso eta seme-alabak jokatzen ari dira, elkarrekin edo talde ezberdinetan. Zigoitiko Txapelketa, Udalak bultzatutakoa, urtik abenduaren erdira arte egiten da eta aurtengoa 31. edizioa izango da. Bolo-jokoaren probarik famatuena da, baina ez bakarra. Ezta gutxiago ere! Etxabarri-Ibiñako bolariak (2 talde), Berrikanokoek (2), Muruakoek (1), Apodakakoek (1), Zestafekoek (1), Letonakoek (1) eta Akostakoek (1) honakoetan ere hartzen dute parte: Abetxukoko Txapelketan (urtarrilean),

Herriartekoa (otsailetik ekainera), herrietako jaietako txapelketetan (udan), Arabako Foru Aldundiaren Torneoan (urrian) eta Gorbeiko Inguruetako Txapelketan (abenduaren amaieran, Urkabustaiz eta Zuiarekin).

Joko integratzailea

Bolo-partida batera joaten bazara, oso deigarria da parte hartzaileen nahaste bitxia: gehienak gizonak dira, baina gero eta emakume gehiagok jokatzen dute, eta baita gazteek ere. "Lehen, herrietan, oso aukera gutxi zegoen jendearekin egoteko. Ilandetan mezetara joaten zen jendea, elkarrekin egoteko eta herritarrekin hitz egin ahal izateko. Neurri berean, bolo-jokoa gizarteratzeko aitzakia bat zen", dio Juan Carlosek. Gaur egun jokalar asko erretiratu dira, batez ere gizon nagusiak, baina emakumeak etorri dira eta baita gazteak ere. "Primeran pasatzen dugula ikusten dute eta animatzen dira. Partidez aparte, bolo-jokoa hamaiketakoa da, askaria, inguruetako herrietako jendearekin elkartzea... Begiratu zenbat erakartzen duen: Ondategiko taldea futbitokoa da; jokatzeari utzi zioten eta elkarrekin jarrailu nahian, bolo-jokora pasa dira", amaitzen du bolariak.

Zugatik Imanol - Ibilgailu Klasikoen Elkartea

"Ahal duzuen guztietan... txunditu zaitezte!"



"Imanol behar baino lehenago joandako gaztea DA. Bere herria Ondategi da eta Zigoitiarekin estuki lotua egon izan da beti: jaiak, Mairulegorreta, txangoak, argazki lehiaketak... Beti pozik eta irribarretsu, eta bere lagunena laguna; hortik, ziurrenik, egun hau berez irten izana".

Lerro gutxi hauetan *Imanol*en Elkarteko kideek taldearen beraren oinarria eta arima definitu dituzte. Izen osoa *Zugatik Imanol - Ibilgailu Klasikoen Elkartea* da, nahiz eta elkartekideek dioten eurentzat "Moraditosen elkartea" izango dela beti, Imanoli bereziki kolore morea gustatzen zitzaiolako, eta, gaur egun, arrazoi horregatik, elkartearen kolore bereizgarritzat dutelako.

Datorren uztailaren 10ean hiru urte beteko dira zigoitiarrek asko maitatzen duten gazte ondategiarrak, Imanol del Valek, errepidean bizia galdu zuenetik. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta urteak aurrera doazen, bizirik eta presente jarraitzen du bere lagunena eta senideen artean, eta urtero ospatzen dute kontzentrazio bat aipaturiko data horretatik gertuen dagoen igandean. Aurten, uztailaren 8an egingo dute, Gopegin, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 15:00ak arte. Bertan, askotariko ekintza eta ekitaldien bitartez, baina bereziki

motorraren munduarekin loturikoen bitartez, oroituko dute laguna, berarekin partekatzen baitzuten pasio hori.

Kontzentrazioaren hirugarren edizioa izango da. Beraien esanetan, "lagun talde baten ideiatik abiatuak sortu zen, eta intentzio bakarra du: Imanoli omenaldia egitea". Egia da, baina, egun horretan, "goizegi joandako beste hiru zigoitiar ere oroitzen ditugula".

Erakundeei, elkarteei eta, bereziki, Zigoitiko herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiete urtez urte euren aletxo eta laguntza eskaintzeagatik. Eta horregatik, Imanolentzat hain berezia den omenaldi honetan berriro ere parte hartzera gonbidatzen dituzte. Baina, sutzuki, txunditzera, gonbidatzen dituzte, edo, Imanolek zioen moduan "Ahal duzuen guztietan... Txunditu zaitezte!"

Web orrialdea: www.zugatikimanol.com

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentrotik, EALZtik, informazioa

EALZ, bigarren eskuko merkatu solidarioarekin bat

Aldizkari honetako 6. orrian ikusi ahal duzuen moduan, Zigoitia udalerrri solidarioa da. Eta Gizarte eta Kultura Zentroak animatuta, apirilean Zigoititik Mundura taldeak egindako "Elkartasun Astea" guk ere hartu dugu parte. Ekimena bi proiektu ezberdini laguntzeko jarri zuten martxan: bat Grezian dago, NO NAME KITCHEN elkartea bultzatzen du, eta errefuxiatuak laguntzen ditu; bestea Ugandan, VURA MUSIC PROYECT elkartearen eskutik, ume eta gazteei heziketa eta laguntza emateko.

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroko kideak gogo onez batu ginen eta gure harriskorra jarri genuen, eskulan tailerren egindako hainbat obrek. Birziklatutako materialak erabiliz, apirilaren 22an izandako bigarren eskuko Merkatu Solidarioan aurkeztu genituen gure lanak. Jardunaldian Zigoitiko herritarrek hartu zuten parte eta baita ondo pasatzera kanpotik etorritako pertsona askok ere; merkatuz gain, ekitaldi ezberdinak egon baitziren: Mairu Abesbatzaren emanaldia, dantza plazan, musika...

Ikusten duzuen bezala, Eguneko Arretarako Landa Zentroak gure inguruak laguntzeko eskaintzen dizkigun aukera guztiak aprobetxatzen ditu. Gure udalerrian gertatzen dena interesatzen zaigu. Eta adinaren mugatik haratago dauden hau bezalako ekimenetan, adinekoak pertsona aktiboak eta protagonistak bezala ikusarazteko aukera eskertzen dugu. Merkatuaren arrakastarekin pozten gara, eta Zigoitiko hurrengo gizarte ekintzetan ere parte hartzea espero dugu.


Beste hitzordu batzuk

Maiatzean egin dugu urteko lehenengo irteera: Okako Iruñako EALZarekin batera, Gasteizko Abastos Merkatuarekin bisita, hain zuzen ere. Oraindik data zehaztu gabe dago, baina laster Sirimiri enpresako kide batek estimulazio fisikoaren tailer bat emango digu. Beste adineko batzuentzat irekia izango da, gure zentroko erabiltzaileez aparte. Eta, eguraldiak uzten digun bakoitzean, Gopegiko osasun parkea ere aprobetxatzen ikasteko.



"Gizon batzuk habe kakotuak dira, beste batzuk lore bat"

Testuak eta argazki hautaketa: **Javier Arbulu**



Gizon batzuk habe kakotuak dira, beste batzuk lore bat. Azkenik, aldi berean bi gauzak bihurtzeko zoria daukate batzuek. 2013ko udaberriaren inguruan igo zen liburutegira Jesus Egurceguiren *'La vida del pastor y el manejo del rebaño'* itzultzeraz. Atea poz-pozik ireki zuen, liburuak gauza asko erakutsi baitzizkion. Kezkatuta zegoen orduan ikusitako ardi batzuekin, "gaua eta eguna besterik ez zuten eskeleto triste batzuk". Baina liburuaren irakurketak artaldearen jabearekin partekatzeo ideia batzuk helarazi zizkion, eta horrek umore ezin hobea eragiten zion.

81 urterekin ikasten jarraitzeko gogoaz zuen, besteei lagundu ahal izateko, eta liburu batek zerbait berria erakusten zion bakoitzean, irribarrearekin itzultzen zuen.

Itzulketa eta maileguaren artean, hizketan

aritzen ginen. Nigatik interesa adierazten zuen. Zigarro bat egiten ikusten baninduen, pikadura aipatzen zuen: nola lehen, egitean, goma txupatzen zen; eta nola, lursailik hoberenak landu behar zituenean, puru bat erretzea maite zuen. "Beti haize zabalean, puruaren kea taberna batean azeriak hiltzeko modukoa delako". Berak, tabako batetik beste batera pasatzea aurrerapen bat bezala ikusten zuen. Agian aurrerapen txiki bat, baina aurrerapena azken finean. Horrelako solasaldi batean kontatu zidan nola alkate aukeratu zuten 'hatzamarrez'. Kontatu zidan bere burua zurituko balu bezala, adieraziz bere lana idazkariak ematen ziona sinatzea eta jaietan leku nabarmen batean egotea besterik ez zela. "Uste dut inor ez nuela kaltetu" – esaten zidan, burua alde batetik bestera mugituz.

Nola ondo dakidan herri-liburuzainok apaiz-aire bat mantentzen dugula, *ego te absolvo* aurpegia

jartzen nion eta berak lasaiago alde egiten zuen. Atea irekitzerakoan, eskua oraindik eskulekuan jarrita, pixka bat lotsati, egin behar zuelako, eta aldi berean jakinaren gainean, egoera edozein izanik ere, egin beharra zegoela, bueltatzen zen eta galdetzen zidan: zerbait zor dizut?

"Agurmaria bat eta aitagure bi" – esaten nion nik, barre artean- "baina ez kezkatu. Dena ordainduta dago jada". Orduan, liburuzain, apaiz eta anarkista baten arteko nahasketa arraro hori oraindik pikaduratik Ducadosera ez zela pasatu aztertuz, bere begi urdinekin begiratzen zidan, sinesgogortasun, errukitasun eta bihurkerian kulunkatzen zen irribarre batekin. Horrela geratzen zen segundo batzuk eta, nahigabetu samar, azkenik liburuak plastikozko poltsa batean sartuta ataria gurutzatzea erabakitzen zuen.

Hanpatutako nabarmenkeria eta pornografia anorexiko *kultureta* nagusi diren garai hauetan, jende gehienak bere lau irakurgaiak izateko edo, zuzenean, ezer ez irakurtzeko harrokeriak egiten dituztenean, berak plastikozko poltsaren sistema maite zuen. Kuxkuxeroetatik babesa ematen zion eta. Ikasi nahi zuen, lagungarria izan nahi zuen, baina nahiago zuen jendeak ez jakitea liburu artean zebilenean. Ez zuen horregatik, edo beste edozerengatik, harrokeriarik erakusten. Horrela, liburutegitik atera ohi zuen lapurreta bat egin berria izango balu bezala. Batzuetan

poltsarekin, beste batzuetan liburuak gerrikoan lotuta, jertsearen azpian. Niri, hori guztia, zoragarria iruditzen zitzaidan. Egia esan, irakurtzera bultzatzen duten kanpainak ez ditut atseginak. Beti pentsatu dut pizgarririk handienak debekuak direla; nolabait, irakurketa eta delinkuentzia batu behar ditugula. Gurasoek irakur dezatela, eta seme-alabei irakurketa zeharo debekatu diezaietela! Seguruenik, beste kuku batek joko liguken.

Horrela, denbora pasatzen joan zen, eta goiz batean, beharbada sinesgogortasun bihurri eta errukitsu horrek eraginda, agian pentsatuz zer nolako lursailak landuko dituen oraindik ere Ducadosera pasa ez den ganorabako honek, niri ordaintzea erabaki zuen. Eta egin zuen inoiz kontatu didaten istoriorik hoberenetako batekin, benetako istorio epiko batekin: bere etxeko habe kakotuaren istorioa, eta nola iritsi zen bertaraino. Egun horretan, ateko eskulekuari heldzean, berriro ere bueltatu zen betiko galdera botatzeko. Baina aldi horretan keinu ezberdin batekin zetorren, inolako erantzunik itzarongo ez balu bezala, hor barruan zerbait loratu balitz bezala. Era horretan, Daniel Santamariak, Lagagorri auzoko herritarrek, Mauricio eta Federicoren laugarren semeak, bere seme Pablok kontatu zidan bezala, etxe berean jaiotzeko, bizitzeko eta hiltzeko zortea izan zuenak, ataria zeharkatu zuen. (jarraituko du)



Argazkia: Pablo eta Montse Santamaría.

M6: artaidetza oso anitza eta giro ederra

“Zigoitiar biztanle izanik, nahi al duzu libreki Euskal Herriko etorkizuna erabaki?” Hauxe da maiatzaren 6an Zubigoitiak (Gure Esku Dago taldeak) bultzatutako herri galdeketa mahai gainean jarri zen galdera. 325 bozka emititu ziren; hau da: biztanleriaren %21’80ak bozkatu zuen. Eta %98’77ak baietz esan zion galderari. Kontsultaren arduradunak esanetan “oso pozik gaude, herria

pizteko balio izan duelako”. Era berean, azpimarratu nahi dute egun osoko giro ederra eta partaidetza oso anitza: “ideologia ezberdinetako jendeak hartu du parte. Eta datuen gainetik, bozkatzeko ariketa berak du garrantzi handiagoa”. Herri galdeketa eginda, lanean jarraitzen dute. Hurrengo hitzordua: ekainaren 10ean Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen eta Zigoitia zeharkatuko duen giza katea.

Autobusen ordutegiak

1

ZIGOITIA – VITORIA-GASTEIZ

ZESTAFE	OKOIZTA/ACOSTA	ETXAGUEN	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERIBE	BURIJAGA	BERRIKANO	APODAKA	ETXABARRI IBIÑA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	GASTEIZ/VITORIA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>													
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26
*	*	14:30	14:33	14:35	*	14:38	14:41	*	14:44	14:48	14:55	14:57	15:06
*	*	16:00	16:03	16:05	*	16:08	16:11	*	16:14	16:18	16:25	16:27	16:36
*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16
*	*	21:00	21:03	21:05	*	21:08	21:11	*	21:14	21:18	21:25	21:27	21:36
						22:05					22:14	22:16	22:25
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>													
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36

1

VITORIA-GASTEIZ – ZIGOITIA

(*Acercamiento: el autobús solo parará si las personas usuarias avisan con antelación)

GASTEIZ/VITORIA	GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL)	ETXABARRI IBIÑA	APODAKA	BERRIKANO	BURIJAGA	ERIBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAGUEN	OKOIZTA/ACOSTA	ZESTAFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>>>													
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*
13:45	13:54	13:56	*	*	*	*	14:13	*	14:16	14:18	14:21	*	*
15:15	15:24	15:26	*	*	*	*	15:43	*	15:46	15:48	15:51	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*
20:20	20:29	20:31	*	*	*	*	20:48	*	20:51	20:53	20:56	*	*
21:40	21:49	*					22:00		*	*			
LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>													
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*